



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko azaroaren 20a

137. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—11-24/CCO-00029. “Jardunbide Egokien aldeko eta Ustelkeriaren kontrako Bulegoaren urteko kontuak (2023)” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-24/CCO-00029. “Jardunbide Egokien aldeko eta Ustelkeriaren kontrako Bulegoaren urteko kontuak (2023)” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko azaroaren 11n eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak “Jardunbide Egokien aldeko eta Ustelkeriaren kontrako Bulegoaren urteko kontuak (2023)” fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko

Erregelamenduaren 230. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko azaroaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

AURKIBIDEA*ORRIALDEA*

I. SARRERA	4
II. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA.....	4
III. IRITZIA.....	5
III.1 Finantza-auditoretzako iritzia	5
III.2 Lege-betetzeari buruzko iritzia	5
IV. IRITZIAREN OINARRIA.....	5
V. AUDITORETZAKO FUNTSEZKO GAIAK.....	5
VI. BESTE GAI BATZUEI BURUZKO PARAGRAFOA	5
VII. JARDUNBIDE EGOKIEN ALDEKO ETA USTELKERIAREN KONTRAKO BULEGOAREN ERANTZUKIZUNA.....	6
VIII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA.....	6
IX. GOMENDIO GARRANTZITSUENAK	7
1. GEHIGARRIA. JARDUNBIDE EGOKIEN ALDEKO ETA USTELKERIAREN KONTRAKO BULEGOAREN URTEKO KONTUEN LABURPENA (2023).....	8
1.1 2023ko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria.....	8
1.2 2023ko ekitaldiko aurrekontu-emaitza.....	8
1.3 Diruzaintza-gerakina 2023ko abenduaren 31n	9
1.4 Balantzea 2023ko abenduaren 31n	9
1.5 2023ko ekonomia- eta ondare-emaitzaren kontua.....	10
1.6 2023ko ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria.....	10
1.7 2023ko eskudiru-fluxuen egoera-orria.....	10
2. GEHIGARRIA. JARDUNBIDE EGOKIEN ALDEKO ETA USTELKERIAREN KONTRAKO BULEGOA	11
3. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA.....	11
4. GEHIGARRIA. FISKALIZAZIOAREN BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK	12
4.1 Egindako jarduna	12
4.2 Aurrekontu-likidazioa.....	12
4.3 Langileria-gastuak.....	13
4.4 Administrazio-kontratazioa	14
4.5 Transferentzia arruntengatiko eta kapital-transferentziengatiko diru-sarrerak	14

I. SARRERA

Nafarroako Kontuen Ganberak, berari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2024rako fiskalizazio-programari jarraituz, Jardunbide Egokien aldeko eta Ustelkeriaren kontrako Bulegoaren (aurrerantzean, Bulegoa) 2023ko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizatu ditu.

Azterketa lana 2024ko ekainean egin du auditoretzako teknikari batek eta auditore batek osatutako lantalde batek. Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen lankidetzaren ere izan dute.

Jarduketara honen emaitzak Jardunbide Egokien aldeko eta Ustelkeriaren kontrako Bulegoko zuzendariari jakinarazi zitzaizkion, kasua bazen egokitzat jotzen zituen alegazioak aurkez zitzan, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz. Jarritako epea iraganda, ez zen alegaziorik aurkeztu.

Eskerrak ematen dizkiegu Bulegoko langileei, lan hau egitean emandako laguntzarengatik.

Txosten honetako datu guztiak eurotan eman dira, biribilduta, zentimorik ez agertzeko. Emandako datuak eta ehunekoak beti adierazten dute balio zehatz bakoitza biribilduta, eta ez biribildutako datuen batura.

II. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Finantzei eta lege-betetzeari buruzko fiskalizazioa egin da, honako hauei buruzko iritzia emateko:

- Ea 2023ko ekitaldiko urteko kontuak irudi zehatza erakusten duten, alderdi aipagarri guztietan, Bulegoak 2023ko abenduaren 31n zituen ondareari eta finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere jarraituz aplikatzekoa den arau-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuen inguruko printzipio eta irizpideei.

- Ea 2023ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozen funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin alderdi adierazgarri guztietan.

Bulegoaren 2023ko urteko kontuak dira fiskalizazioaren norainokoa, eta honako kontabilitateko egoera-orri hauek hartzen dituzte barnean:

- Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria.
- Egoera-balantzea.
- Emaitza ekonomiko eta ondarekoaren kontua.
- Ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria.
- Eskudiru-fluxuen egoera-orria.
- Memoria.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoak 2023ko ekitaldia hartzen du, baina beste ekitaldi batzuei buruz ere egin dira behar ziren egiaztapenak, ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

III. IRITZIA

Nafarroako Kontuen Ganberak, 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion eskumenak erabiliz, Bulegoaren urteko kontuak fiskalizatu ditu. Honako hauek osatzen dituzte kontu horiek: 2023ko abenduaren 31ko balantzeak, emaitza ekonomiko eta ondarezkoaren kontuak, ondare garbian izandako aldaketen egoera-orriak, eskudiru-fluxuen egoera-orriak, aurrekontuko likidazioaren egoera-orriak eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion memoriak. Orobat, Bulegoaren lege-betetzeari buruzko fiskalizazioa egin du 2023ko ekitaldiari dagokionez.

III.1 FINANTZA-AUDITORETZAKO IRITZIA

Gure iritziz, 2023ko ekitaldiko urteko kontuek irudi zehatza erakusten dute alderdi muntadun guztietan Bulegoak 2023ko abenduaren 31n zuen ondareari eta finantza-egoerari buruz. Halaber, haren emaitza ekonomiko eta aurrekontuak islatzen dituzte, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkionak; betiere, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko arau-esparruari jarraituz, eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei.

III.2 LEGE-BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, Bulegoaren 2023ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin alderdi muntadun guztietan.

IV. IRITZIAREN OINARRIA

Kanpo-kontrolako erakunde publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera egin dugu fiskalizazioa, eta, zehazki, finantza-fiskalizazioari buruzko ISSAI-ES 200 arauan eta legedi-betetzearen fiskalizazioari buruzko ISSAI-ES 400 arauan ezarritakoaren arabera; halaber, kanpo-kontrolako organoen fiskalizazio-gida praktikoak (GPF-OCEX) erabili ditugu. Aurrerago deskribatzen dira arau horien indarrez ditugun erantzukizunak, gure txosteneko "Kontuen Ganberaren erantzukizunak" atalean, urteko kontuei eta lege-betetzeari buruzko fiskalizazioaz denaz bezainbatean.

Entitatearekiko independenteak gara, urteko kontuei eta legedia betetzeari buruzko gure fiskalizazioan aplikatzekoak diren etikaren eta independentzia-babesaren arloko eskakizunekin bat, fiskalizazio publikoko jarduerari buruzko araudiak exijitzen duen bezala.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia ematen dio finantzei eta lege-betetzeari buruzko gure iritziari.

V. AUDITORETZAKO FUNTSEZKO GAIK

Auditoretzako gai giltzarri dira gure iritzi profesionalaren arabera esanahi handiena izan dutenak aztertutako aldiko lege-betetzeaz egin dugun fiskalizazioan. Auzi horiek jorratu ditugu urteko kontuen osotasunari buruzko auditoretzaren testuinguruan eta urteko kontuei buruzko gure iritzia taxutzean, eta ez dugu bereiz azaltzen horien gaineko iritzirik.

Ondorioztatu dugu ez dagoela gure fiskalizazioan jakinarazi beharreko gai giltzarriak.

VI. BESTE GAI BATZUEI BURUZKO PARAGRAFOA

Nabarmendu nahi dugu 2023ko urteko kontuak lehen aldiz azaltzen eta ikuskatzen direla ekitaldi honetan.

VII. JARDUNBIDE EGOKIEN ALDEKO ETA USTELKERIAREN KONTRAKO BULEGOAREN ERANTZUKIZUNA

Bulegoaren zuzendaritzak du urteko kontuak egiteko ardura. Halako moduz egin behar ditu non leialki irudikatuko baitituzte Bulegoaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat. Halaber, bermatu beharko du aipatutako kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin.

VIII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure helburuak dira honako hauek egiaztatzea arrazoizko ziurtasunez: urteko kontuen osotasunean ez dagoela iruzur edo errorearen ondoriozko akats materialik, eta kontu horietan islatutako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, erregulartasunezko fiskalizazio-txosten bat eman ahal izateko, zeinak gure iritzia jasoko baitu.

Arrazoizko ziurtasun hori ziurtasun-maila handia da, baina ez du bermatzen kanpo-kontrolako organoei buruzko araudiari jarraikiz egindako fiskalizazio batek beti atzemanen duenik akats material bat edo urraketa muntadun bat, halakorik dagoenean. Akatsak iruzurraren edo errorearen ondorio izaten ahal dira, edo legedia ez betetzearen ondorio, eta akats materialtzat jotzen dira Kontuen Ganbera honen irizpideak aplikatuta, baldin eta zentzuz aurreikusten ahal bada txostenen erabiltzaile diren pertsonen erabaki ekonomikoetan eragina izanen dutela.

Fiskalizazioaren atal gisa, eta kanpo-kontrolako organoen araudiarekin bat etorriz, gure iritzi profesionala aplikatzen dugu eta eszeptizismo profesionaleko jarrerari eusten diogu auditoretza osoan. Gainera:

- Identifikatu eta baloratu egiten ditugu iruzur edo oker baten ondoriozko akats materiala egoteko eta legeak ez betetzeko arriskuak, arrisku horiei erantzuteko auditoretza-prozedurak taxutzen eta aplikatzen ditugu, eta auditoretzako behar adinako eta behar bezalako ebidentzia lortzen dugu gure iritzari oinarri emateko. Iruzurraren ondoriozko akats material edo urraketa bat ez atzemateko arriskua handiagoa da errorearen ondoriozko akats material baten kasuan baino; izan ere, iruzurra dagoenean, tartean izaten ahal dira kolusioa, faltsutzea, nahitako omisioak, propio eginiko adierazpen okerrak edo barne-kontrola saihestea.

- Barne-kontrolari buruzko ezagutza lortzen dugu, fiskalizaziorako esanguratsua dena, inguruabarren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatze aldera; ez, ordea, entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzi bat emate aldera.

- Ebaluatzen dugu ea aplikatutako kontabilitate-politikak moduzkoak ote diren, ea kontabilitate-estimazioak egokiak diren eta ea egokia den kudeaketa-organismoak emandako informazioa.

- Urteko kontuen aurkezpen orokorra, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, emandako informazioa barne, eta aztertzen dugu ea urteko kontuek zehatz azaltzen dituzten transakzioak eta azpian dauden egitateak.

Erakundearen gobernu-organismoarekin harremanetan jartzen gara, besteak beste, planifikatutako auditoretza-proben norainokoaz eta horiek egiteko uneaz aritzeko, bai eta fiskalizazioaren aurkikuntza esanguratsuez eta fiskalizazioan zehar barne-kontrolari buruz identifikatzen dugun edozein akats adierazgarri ere.

IX. GOMENDIO GARRANTZITSUENAK

Fiskalizazio-lanaren emaitza gisa, Kontuen Ganberak honako *gomendio* hauek egiten ditu:

- *Bulegoaren zerbitzupeko langileen plantilla organikoa urtero onestea.*
- *Neurri egokiak hartzea Bulegoaren plantilla organikoan dauden plaza hutsak behin betiko betetze aldera, aplikatzekoa den araudiarekin bat.*
- *Kontabilitate- eta aurrekontu-kudeaketarako programa informatiko bat ezartzeko aukera aztertzea.*

Javier Marticorena Chapa auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2024ko azaroaren 4an

Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

1. GEHIGARRIA. JARDUNBIDE EGOKIEN ALDEKO ETA USTELKERIAREN KONTRAKO BULEGOAREN URTEKO KONTUEN LABURPENA (2023)

1.1 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN EGOERA-ORRIA

Gastu-aurrekontuaren betetzea

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Betebehar aitortuak	Ordainketak	Betetakoa (%)
1. Langileria-gastuak	498.514	498.514	132.479	132.479	27
2. Gastuak, ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	64.561	64.561	23.107	20.326	36
6. Inbertsio errealak	81.285	81.285	53.116 ¹	51.109	65
Gastuak, guztira	644.360	644.360	208.702	203.914	32

Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako eskubideak	Kobrantsak	Betetakoa (%)
4. Transferentzia arruntak	557.683	557.683	191.648	191.648	34
7. Kapital-transferentziak	86.677	86.677	21.212	21.212	24
Diru-sarrerak, guztira	644.360	644.360	212.860	212.860	33

1.2 2023KO EKITALDIKO AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptua	2023			
	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako be- tebehar garbiak	Doikun- tzak	Aurre- kontu- emaitza
a. Eragiketa arruntak	191.648	155.585		36.063
b. Kapital-eragiketak	21.212	53.116		-31.904
c. Merkataritza-eragiketak				
1. Eragiketa ez-finantzarioak guztira (a+b+c)	212.860	208.702		4.158
d. Finantza-aktiboak				
e. Finantza-pasiboak				
2. Finantza-eragiketak, guztira (d+e)				
I. Ekitaldiko aurrekontu-emaitza (I=1+2)	212.860	208.702		4.158
Doikuntzak				
3. Gastatutako kredituak, atxiki gabeko diruzaintzako gerakinarekin finantzuak				
4. Ekitaldiko finantzaketa-desbideratze negatiboak				
5. Ekitaldiko finantzaketa-desbideratze positiboak				
II. Doikuntzak, guztira (II=3+4+5)				
Aurrekontu-emaitza doituak (I+II)				4.158
Foru Ogasunari itzuli beharreko zenbatekoa				4.158

¹ Partzialki transferentzia arruntekin finantzatutako inbertsioak

1.3 DIRUZAINZTA-GERAKINA 2023KO ABENDUAREN 31N

Kontzeptua	2023
1. (+) Funts likidoak	8.946
2. (+) Kobratzeko dauden eskubideak	
(+) Ekitaldiko aurrekontukoak	
(+) Itxitako aurrekontuetakoak	
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketetakoak	
(+) Merkataritza-eragiketetakoak	
3. (-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	4.788
(+) Ekitaldiko aurrekontukoak	4.788
(+) Itxitako aurrekontuetakoak	
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketetakoak	
(+) Merkataritza-eragiketetakoak	
4. (+) Aplikatzeko dauden partidak	
(+) Eginiko kobrantzak, behin betikoz aplikatzeko daudenak	
(+) Eginiko ordainketak, behin betikoz aplikatzeko daudenak	
I. Diruzaintzako gerakina, guztira (1+2-3+4)	4.158
II. Finantzaketa atxikiaren gaindikina	0
III. Saldo kobragaitzak	0
IV. Atxiki gabeko diruzaintzako gerakina =(I-II-III)	4.158

1.4 BALANTZEA 2023KO ABENDUAREN 31N

Aktiboa	2023
Ibilgetu garbia	204.416
I. Ibilgetu ez-materiala	73.953
Aplikazio informatikoak	73.953
II. Ibilgetu materiala	130.463
Lursailak	67.360
Eraikinak	45.066
Altzariak eta tresneria	6.172
Informazioa prozesatzeko ekipamenduak	11.865
Aktibo zirkulatzaila	8.946
Diruzaintza	8.946
Epe laburreko zordunak	0
Aktiboa, guztira	213.362

Ondare garbia eta pasiboa	2023
Ondare garbia	240.478
Jarritako ondarea	113.317
Ekitaldiko emaitza	36.062
Beste ondare-gehikuntza batzuk, emaitzei egozteko daudenak	91.099
Epe laburreko hartzekodunak	4.788
Kudeaketa-eragiketengatiko hartzekodunak	4.788
Ondare garbia eta pasiboa, guztira	245.266

1.5 2023KO EKONOMIA- ETA ONDARE-EMAITZAREN KONTUA

Zorra	2023	Hartzekoa	2023
Langileria-gastuak	132.479	Diru-sarrera finantzarioak	
Kanpoko lanak, hornidurak eta zerbitzuak	23.107	Transferentzia arruntak	191.648
Amortizazioa	10.971	Ibilgeturako dirulaguntzen emaitzen egozpena	10.971
<i>Aurrezkia (emaitza positiboa)</i>	36.062 ²		
Guztira	202.618	Guztira	202.618

1.6 2023KO ONDARE GARBIAK IZANDAKO ALDAKETEN EGOERA-ORRIA

Deskribapena	Jarritako ondarea	Sortutako ondarea	Bestelako ondare-gehikuntzak	Guztira
Ondare garbia 2022ko ekitaldiaren bukaeran				
2023ko ekitaldian ondare garbian izandako aldaketak	113.317	36.062	91.099	127.161
Ekitaldian aitortutako diru-sarrerak eta gastuak		36.062	-10.971	
Jabea den entitatearekin egindako eragiketak				
Ondare garbian izandako beste aldaketa batzuk			102.070	
Ondare garbia, 2023ko ekitaldiaren bukaeran	113.317	36.062	91.099	

1.7 2023KO ESKUDIRU-FLUXUEN EGOERA-ORRIA

Kontzeptua	2023
I. Kudeaketa-jardueretako eskudiru-fluxuak	
A) Kobrantzak	80.381
2. Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	80.381
5. Kobratutako interesak eta dibidenduak	
6. Beste kobrantza batzuk	
B) Ordainketak	-20.326
9. Hornikuntzak	18.574
10. Beste kudeaketa-gastu batzuk	1.752
13. Beste ordainketa batzuk	
<i>Kudeaketa-jarduerengatiko diru-fluxu garbiak (+A-B)</i>	<i>60.055</i>
II. Inbertsio-jardueretako diru-fluxuak	
C) Kobrantzak	
1. Inbertsio errealak saltzea	
D) Ordainketak	-51.109
4. Inbertsio errealak erostea	-51.109
<i>Inbertsio-jarduerengatiko diru-fluxu garbiak (+C-D)</i>	<i>-51.109</i>
VI. Eskudiruaren eta haren baliokide diren aktibo likidoen gehitze/gutxitze garbia (I+II+IV)	8.946
Eskudirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldiaren hasieran	
Eskudirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldiaren bukaeran	8.946

² Emaitza 31.904 euroan gainbaloratua diru-sarrera arruntan eta kapitalekoen kontabilizazioaren arteko aldeagatik.

2. GEHIGARRIA. JARDUNBIDE EGOKIEN ALDEKO ETA USTELKERIAREN KONTRAKO BULEGOA

Bulegoa 2018ko abuztuaren 23an eratu zen, berezko nortasun juridikoko zuzenbide publikoko entitate gisa; Nafarroako administrazio publikoekiko (aurrerantzean, APak) autonomia organiko eta funtzional osoz betetzen ditu bere eginkizunak.

Bere funtzioak betetzean, bi helburu nagusi ditu:

- APetan eta haien partaidetzapeko entitateetan eta sozietateetan ustelkeria eta iruzurrezko jarduerak hautematea, prebenitzea, ikertzea eta desagerraraztea.
- Jardunbide egokien, herritar-balioen eta gobernu onaren kultura bultzatu eta faboratzea herritarren artean, eta ustelkeria baztertzea politika publikoak eta jarduketa administratiboak taxutu, bete eta ebaluatzean.

Parlamentuak 2022ko maiatzaren 26an izendatu zuen Bulegoko zuzendaria, sei urteko eperako, zeina 2022ko uztailaren 1ean jabetu baitzen karguaz.

Bulegoaren aurrekontu-araubidea eta araubide ekonomiko-finantzarioa Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legean ezarritakoa da, eta haren kontabilitatea Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrari lotuta dago. Bulegoaren aurrekontua eta kontuak Nafarroako aurrekontu eta kontu orokorretan sartzen dira.

3. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA

Honako hau da Bulegoari 2023ko ekitaldian aplikatzekoa zaion arau-esparrua:

Estatuko araudia

- EHA/1037/2010 Agindua, apirilaren 13koa, Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra onesten duena.

Foru araudia

- 7/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, Nafarroako Foru Komunitateko Jardunbide Egokien aldeko eta Ustelkeriaren kontrako Bulegoa sortzekoa.
- 14/2004 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ondareari buruzkoa.
- 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun publikoari buruzkoa.
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.
- 35/2022 Foru Legea, abenduaren 28koa, 2023rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren testu bategina onesten duena, bai eta hura garatzeko xedapenak ere.
- 14/2023 Foru Dekretua, martxoaren 1ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko Jardunbide Egokien aldeko eta Ustelkeriaren kontrako Bulegoaren Antolaketa eta Funtzionamendu Erregelamendua onesten duena.

4. GEHIGARRIA. FISKALIZAZIOAREN BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, Ganbera honen ustez fiskalizazio-txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gertatzen ahal direnak.

Orobat, gehitu ditugu Bulegoaren kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetze aldera Ganbera honen ustez beharrezkoak diren gomendioak.

4.1 EGINDAKO JARDUNA

Zuzendariak emandako jarduera-memoriaren zirriborroaren arabera, 26 salaketa artatu dira.

- Honako koadro honetan azaltzen da aurkeztutako salaketen izaera:

	Kop.
Udal-kudeaketa: antolaketa, emakidak, kontratazioa, tasak eta hirigintza	9
Administrazio publikoan informazio-/salaketa-kanalik ez egotea	9
Langileria	4
Beste batzuk	4
Salaketak, guztira	26

- Salaketak jarri dira toki-entitateen, Foru Komunitateko Administrazioaren (aurrerantzean, FKA) eta beste erakunde batzuen aurka; 18, sei eta bi kasu izan dira, hurrenez hurren.

Guztira, 11 salaketa artxibatu egin dira gomendioa emanda, zazpi egiazkotasun-fasean daude, hiruk ikerketa-prozedura hastea eragin zuten eta instrukzio-fasean daude, hiru ez dira onartu eskumen faltagatik, batean zehapen-prozedura bat hasi da eta batek xedea galdu du (administrazioak uko egin dio salatutako proiektuarekin jarraitzeari).

Hau gomendatzen dugu:

behin betiko onestea Bulegoak egindako jardueraren urteko memoria, eta memoriaren laburpena aurkeztea Nafarroako Parlamentuari.

4.2 AURREKONTU-LIKIDAZIOA

- Bulegoaren 2023rako hasierako aurrekontuaren arabera, 644.360 milioi euroko diru-sarrerak eta gastuak aurreikusten ziren hasiera batean.

- Aitortutako betebeharrak 208.702 eurokoak izan dira, eta betetze-maila ehuneko 89koa izan da.

- Aitortutako eskubideek 212.860 euro egin dute, eta betetze-maila ehuneko 33koa izan da. Diru-sarrera guztiek NFKA - Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan dute jatorria.

- Koadro honetan ageri dira Bulegoaren gastuen eta diru-sarreren xedea eta finantzaketa, ehunekotan:

Gastuaren izaera	Ehunekoa	Finantzatze-iturria	Ehunekoa
Langileria	64	Transferentzien bidezko diru-sarrerak	100
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	11		
Inbertsioak	25		
	100		100

- Bulegoak, indarreko araudiari jarraituz, 4.158 euro itzuliko dizkio Foru Ogasunari. Zenbateko hori, ondoren erakusten den moduan, bat dator aurrekontu-emaitza doituarekin:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Diru-sarrerak, guztira	212.860
Gastuak, guztira	208.702
Foru Ogasunari itzuli beharrekoa, guztira	4.158

4.3 LANGILERIA-GASTUAK

Bulegoaren langileria-gastuak 132.479 eurokoak izan ziren 2023an, honako xehetasun hauekin:

Kontzeptua	2023ko behin betiko aurrekontua	Aitortutako betebeharrak (ABG), 2023
Behin-behineko langileen ordainsariak	76.011	76.044
Langile funtzionarioen ordainsariak	323.369	31.619
Ordezkapenetarako aldi baterako langileen ordainsariak	2.000	
Gizarte Segurantza	97.134	24.816
Guztira	498.514	132.479

Gastu horiek betetze-maila txikia dute, ehuneko 27koa, plantillan aurreikusitako postuak ez direlako bete.

Egiaztatu dugu 2023ko ekitaldian jasotako ordainsariak bat datozela arauz ezarritakoarekin.

Plantilla organikoa


Bulegoko zuzendariaren maiatzaren 15eko 1/2023 Ebazpenaren bidez onetsi ziren behin-behinean 2023rako plantilla organikoa eta lanpostu-zerrenda, baina ez da jaso behin betiko onespenerik.

Honako hauek dira lanpostuak, azken plantilla organikoaren arabera:

Lanpostua	Maila	2024
Zerbitzuko zuzendaria	A	3
Atalburua	A	1
Prestatzaile-aholkularia	A	1
Ikuskatzailea (juridikoa)	A	2
Ikuskatzailea (ekonomikoa)	A	1
Komunikazioko goi-tituluduna	A	1
Administraria	C	1
Guztira		10

Postu guztiak funtzionarioen araubide juridikokoak dira.

Honako hau da organigrama:



2023ko abenduaren 31n, zuzendariaz gain, ekainaz geroztik, beteta dago komunikazio eta parte-hartzeko ataleko buruaren postua –zerbitzu-eginkizunetan–, nahiz eta haren lotura 2024ko urtarrilean amaitu zen.

Txosten hau idazteko unean, Prebentzio, Ebaluazio eta Prestakuntza Zerbitzuko zuzendaria eta kontratu administratiboa duen administrari bat daude. Gainera, aldi baterako betetzeko hiru postu-tarako deialdia egin da: administraria, ikuskaria (arloan ekonomikoa) eta ikuskaria (arloan juridikoa).

4.4 ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOA

Honako gastu-lagina aztertu dugu, bai eta, hala izan denean, erabilitako kontratazio-prozedura ere:

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	ABG	Ordainketak	Betetakoa (%)
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	64.561	64.561	23.107	20.326	36
6. Inbertsio errealak	81.285	81.285	53.116	51.109	65

Egindako lanaren konklusioa da gastuak zuzen kontabilizatuta eta justifikatuta daudela. Horrez gain, kontratazioak aplikatzeko den araudiari jarraikiz egin ziren.

4.5 TRANSFERENTZIA ARRUNTENGATIKO ETA KAPITAL-TRANSFERENTZIENGATIKO DIRU-SARRERAK

Transferentzia arruntengatiko eta kapital-transferentziengatiko diru-sarrerak, hurrenez hurren, 191.648 eta 21.212 eurokoak izan ziren, diru-sarrera guztien ehuneko 100, hain zuzen ere. Haien betetze-maila ehuneko 33koa izan zen:

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	AEG	Kobrantzak	Betetakoa (%)
4. Transferentzia arruntak	557.683	557.683	191.648	191.648	% 34
7. Kapital-transferentziak	86.677	86.677	21.212	21.212	% 24
Diru-sarrerak, guztira	644.360	644.360	212.860	212.860	% 33

Transferentzia arruntan betetze-maila baxua izan zen ez zelako finantzaketarik behar izan plantilla organikoan aurreikusitako plazak ez zirelako bete.

Beste alde batetik, egiaztatu dugu beste izaera bateko transferentzien kargurako kapital-inbertsioak egin direla, eta ez dagoela horretarako beharrezko justifikazio formalik, eta hori eskatzen da Aurrekontuei buruzko Foru Legean. Hori horrela, ez datoz bat jasotako kapital-transferentziak eta gastu-aurrekontuan kontabilizatutako inbertsioak.

Egiaztatu dugu aurrekontu-informazioa koherentea dela Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan jasota dagoenarekin.

Hau gomendatzen dugu:

- *Nafarroako Gobernuari justifikatzea egindako inbertsioen beharra, dagokion finantzaketa eskatu baino lehen.*
- *Jardueraren gastuak eta diru-sarrerak horien izaera ekonomikoaren arabera kontabilizatzea.*

